

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskarazko haur-aldizkariak irakurle berrien bila dabilta

Hiru dira harpidetza bidez edota Euskal Herriko zenbait liburudendatan eros daitezkeen euskarazko haur-aldizkariak: *Kili-kili*, *Ipurbeltz* eta *Xirrixta*. Hirurogeigarren hamarkadako Pan-Pin komikiaren jarraitzaileak dira, baina komikiek baino zerbait gehiago eskaintzen dute: elkarrizketak, ipuinak, erreportaitxoak, jokoak...

· **Kili-kili** (Bilbo, 1966). Jose Antonio Retolazak sortua. Hasieran umeei euskal nortasunaren berri ematea zuen helburu. Gero, euskaraz alfabetatzea, sariak-eta erabiliz.

Hasi eta lasterrera debekatu egin zuten eta diktadura amaitu zenean berriro ekin zion lanari. Bi edizio egiten dira gaur: bizkaieraz eta batuaz. Gaiei dagokienez, komikiak, igarkizunak, kultura gaiak, euskal historia, etab. eskaintzen ditu. Komikiak original eta erositakoak ematen ditu. 1992an *Argia* aldizkariak sari berezia eman zion. Harpidetza egiteko: Kili-kili, Somera, 10-2.a, Bilbo 48.005. Tfnoa.: (94) 416 60 49.

· **Ipurbeltz** (Zarautz, 1977). *Erein* argitaletxeko zenbait lagunek sortu zuten, indarra hartzen ari ziren ikastolei

zerbitzua emateko asmoz. Hasieran Euskal Herriko idazleak eta marrazkilarien lanak bultzatzea erabaki zuten. Oso profesional onen lanak agertu dira bere orrialdeetan. Marrazkilarien artean Jesus Lucas, Antton Olariaga, Hilario Urkia, Tomás Hernández--Mendizabal, Asun Balzola, Jon Zabaleta etabar luzea. Idazleen artean Jesus Mari Arrieta, Antton Aranburu, Andu Lertxundi... plantel ikusgarria! Gaur egun belaunaldi berri bat ari da *Ipurbeltzen*. Itzulitako lanak ere argitaratzen ditu, baita komikiak, gutunak, ipuinak eta jolasak eskaini ere. Harpidetza egiteko: Ipurbeltz, Tolosa ibilbidea, 107, 20.009 Donostia. Tfnoa.: (943) 21 82 11.

· **Xirrixta** (Ustaritze, 1992). Euskal Kultur Erakundeak argitaratzen du 4-8 urte arteko ume euskaldunentzat. Haurren irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Aldizkariaren 19 orrialde Toulouseko *Tobogan* aldizkariaren itzulpen dira.



Gainerakoak bertan egindakoak. Ipuinak, komikiak, erreportaiak, jolasak eta eskulanak ekarri ohi ditu. Euskalkiak errespetatzen dituen euskara bildua darabil kontu handiz. Datorren urrian lehen urtea beteko du. Hori dela eta zozketa handi bat egingo du harpidedunen artean eta abendurako 1.000 harpidedun gehiago lortzea xede duen kanpainari ekingo dio. Harpidetzak: Euskal Kultur Erakunde, Lota - 6 P.K. 64480 Ustaritze. Tfnoa:(07.33) 59 93 25 25.

	Orriak	Zenbakiak	Harpidedunak	Harpidetza
KILI-KILI	16	164	4.600	1.000pta.
IPURBELTZ	32	189	2.750	2.600pta.
XIRRIXTA	24	11	2.000	4.000pta.*

(*) Urrian jaso egingo dira prezioak

Jose Antonio Retolaza, euskararen kili-kiliak bihotzean

"Lehen ikastola, etxea eta lehen andereñoa, ama izan nituen". Bilbon jaio zen Jose Antonio Retolaza, 64, euskaltzalearen hitzak dira. Lehen ikasketak Bilbon egin zituen eta, gazterik, euskara ahaztuta zuela, Gasteizera joan zen abade ikasketak egitera. Gerraostea zen eta han ez zuen euskal girorik aurkitu, kontrakoa baizik. Bere kontura, ezkutuan, hasi zen euskara ikasten.

Abade egin eta lasterrera Arrazolaria bidali zuten. "Hura izan zen nire unibertsitatea", dio, "asko ikasi nuen nik han". Euskaltzale fina, arazo latzak izan zituen Elorrioko alkateak Bizkaiko gobernadore zibilaren aurrean salatu zuenean, Funcor-eko eskolan zuzendari zela euskara irakasten zuelako. Hirugarren hilabetearen alde egin behar izan zuen eskolatik, Bizkaiko gotzainak aginduta. Ez

ziren hor amaitu euskal elizaren jerarkiarekin izan zituen arazoak. Azkenean utzi egin zuen abadetza, gogaituta garai hartako agintari zibilen menpe hain erraz jausten ziren elizako agintariekin. Ezkondu ere egin zen eta gaur egun Muxikan bizi da bere familiarekin, besteak beste bere seme-alabak giro euskaldunean haz daitezzen.



Jose Antonio Retolaza

Euskal Herriko umeak euskalduntzeko eta euskal nortasunaren jabe egiteko egin du lanik handiena. *Kili-kili* haur-aldizkaria da ezagunena, baina horrekin batera *Kili-kili eguna*, *Kili irratia*, *Kili-jolas* egunak izeneko udalekuak, *Ezetz igarri* lehiaketa eta bestelako ekintza asko antolatu ditu. Latinari jazotakoa euskarari gerta ez dakion, euskarak eskolaz kanpo hartu beharko luke indarra, Retolazaren ustez.

Frantzia eta euskara

Uztailaren 30a egun handia izan zen euskararentzat. Euskaltzaindia sortu zenetik lehen aldiz, Akitaniako Kontseilu Nagusiak harrera egin zion mugaz alde bietan hedatzen den erakundeari.

François Bayrou, Akitaniako Kontseilu Nagusiko lehendakari eta Frantziako Gobernuoko Hezkuntza ministraria izan zen ekitaldiaren buru. Harekin batera Ipar eta Hego Euskal Herriko ordezkari politikoak eta euskararen sustapenean ari diren erakunde askotako ordezkariak bildu ziren.

Frantziako jakobinismoaren garaiak berea egin duela aitortu ondoren, Europari hizkuntza aniztasuna onartzeko tenorea iritsi zaiola adierazi zuen François Bayrouk. Gainerakoek hitzetan ere egun horren garrantzia euskararentzat paregabeko abagunea dela esanez.

Euskaltzaindia Kontseilu Nagusiko aurrekontuetan ssartuko da eta aurrerantzean aholkularitza lana eskainiko dio.

Dirulaguntzak euskarazko literatur lanentzat. Nafarroako Gobernuak HPZNe egiten du deialdia. Dirulaguntzak 92ko azaroaren 1etik 93ko urriaren 1a bitartean argitaratutako lehen edizioentzat izango dira. Nafarroako argitaldarien edo bertan argitaratzen dituzten egileek jaso ahal izango dituzte. Eskariak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira.

Euskara ikasten duten funtzionarioentzako ordu eta lan konpentsazioak gaurkotu ditu Nafarroako Gobernuak. Urritik ekainera bitarteko bi orduko ikastaroetarako lan ordutegitik hartuko da ordubete. Lau aste dirauten sei orduko ikastaro trinkoak bere osoan lanorduen kontura joango dira. Uda ikastaroa 13 lanegunetik kitatuko da eta EGArako eskola trinkoak lanorduen kontura.

Euskararen Aholku Batzordeak (26 lagunez osatua) azken hamarkadari dagokion txostena aurkeztu zion Jose Antonio Ardanza Lehendakariari. Euskararen Legean finkatutakoa kontutan hartuz, txosten honen bidez azken urteotan egin dena aztertu, euskara zein egoeratan dagoen ikusi eta herri-aginteei dagokienez etorkizunari begira zer egin behar den zehazten da.

"Euskera jatorraren ildotik" Arrate Irratiak aurten argitaratu duen liburua da. Egilea J.L. Etxeberria dugu, Txiguia. Liburu hau Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren babesean 1988. urtetik aurrera Arrate Irratian Aberastu dezagun euskera izenez emandako irratsaioaren laburbilduma da. Komunikabideetan-eta txarto osatutako esaldiek egoki nola izan beharko luketen erakusten du.

Aldaketak administrazioa euskalduntzeko egitasmoetan

Abuztuaren 3an Eusko Jaurlaritzak dekretu berria onartu zuen Herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua egokitzeko. HPINek joan den martxoan Gobernu Batzordeari aurkeztutako azterketaren ondorioa da aldaketa hau; hain zuzen, 224-1989 Dekretuaren aginduz gutxienez bi urtetik behin aztertu behar delako plangintzaren betetze maila.

Dekretu berri honetako arau aipagarrienak hauexek dira:

- Arautu egiten da hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko prozedura.

- 224/1989 Dekretuan aipatutakoez gain, oinarriko batxilergoa edo Oinarriko Hezkuntza Orokorra (OHO) gainditu ez dutenek ez dute hizkuntza eskakizunen derrigorrezko arau orokorra bete beharrik izango.

- Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko epeak berriz finkatzen dira:

- Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna 2.a denean eta 1.a gainditua badu, urtebeteko epea izango du 2.a egiaztatzeko.

- Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna 3.a denean eta 2.a gainditua badu, bi urteko epea izango du 3.a egiaztatzeko.

- Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna 4.a denean, 3.a gainditu beharko da, haren derrigortasun data baino lehenago (1990-95eko plangintza-aldian).

- Goian aipatutako luzapenen barruan hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketak antolatuko dira.

- EGA, Hizkuntz Eskolako gaitasun agiria, Labayruk luzatutako ziurtagiria eta hirugarrengo hizkuntza eskakizuna parekatu egiten dira.

Aldaketa horiek euskara ikasten edo eta badakitela egiaztatzen diharduten langileei bidea erreztearren etorri dira.

Helen O Murchu, Hizkuntza Gutxituen Bulegoko lehendakari irlandarrak Europako Hizkuntza Gutxituen Agiriaren nondik norakoak azaldu zituen Donostian.

Lucien Etxezaharreta, kazetari eta idazleak "Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian" izan zuen mintzagai Iruñean egin zen Udako Euskal Unibertsitatean.

Iñaki Larrañaga, 60, soziologo lazkaotarrak euskararen egoera giza harremanetan aztertu zuen EHUK eraturako Udako Ikastaroetan; euskara jakiteko motibazioa, haren ezagupena eta erabilera jorratu zituen.

William F. Mackey, Laval Unibertsitateko irakasle eta hizkuntzalari quebecarrak hiru hitzaldi eman zituen Donostian EHUK antolatutako Udako Ikastaroetan. Hizkuntzei dagokienez munduan sortu den egoera berriaz mintzatu zen.

Euskararen Berripapera ingelesez

Euskararen berriak nazioartera zabaldu guran, EUSKARAREN BERRIPAPERA ingelesez ere argitaratzeari ekin dio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak. Urtean bi ale, abuztuan eta abenduan, zabalduko dira horrela. Hasteko, 500 ale banatu dira munduan zehar hizkuntzen arloan lanean ari diren erakunde eta norbanakoen artean.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

Galdezka

Administrazioa euskaldunduz

G. Nori dagokio administrazioaren hizkuntza normalkuntza?

E. Euskal Autonomi Elkarteko administrazio maila guztiei dagokie: Jaurilaritari, foru aldundiei eta udalei. Tokian tokian gauzatu behar dira onartutako arauak. Eta gauzatze hau agintari, funtzionari eta herritarrei esker egingo da. Agintariek erantzukizun berezia dute guzti honen gidaritzan, funtzionarioek EAEko administrazioaren langile izateak dituen hizkuntza eskakizunak alboratu ezinezkoak dituzte. Herritarrei administrazioarekiko harremanetan euskaraz jarduteko duten eskubidea erabil dezaketela adierazi eta horretarako bideak geroz eta erosoagoak egin behar zaizkie.

Administrazioa gizartearen erakundetzearekin loturik dago. Geurean euskararen erabilera normaltzeko bidean aurrera egiten dugun adinean herri honi dagokion administrazioa garatzen ari garela jakin behar dugu.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Itzulpen-Masterra Deustuko Unibertsitatean

Deustuko Unibertsitateko Itzulpen-Masterrak itzultzaile profesionalak prestatu nahi ditu ingeles-gaztelania eta gaztelania-euskara bikoteetan. Master honek hizkuntza zerbitzuetan orohar eta itzulpengintzan bereziki egun dagoen gero, eta eskaera handiagoari erantzuteko prestakuntza egokia bermatzea du helburu.

Masterrak 1990ean ekin zion bere ibilbideari gaztelania-euskara ereduarekin. Europako mugen deuseztapenak eta merkatuen gero eta nazioarteratze handiagoak masterra ingelesaren eremura zabaltzea ekarri du. Landu beharreko arloen artean batez ere arlo juridiko-administratiboa eta merkataritza teknikoak landuko dituzte ikasleek.

Eskola eta praktika ordu gehienak idatzizko testu eta dokumentuen itzulpengintzan emango dira. Beste espezializazio

batzuek ere, interpretaritzak eta azpitutazioak kasu, beren lekua izango dute.

Itzulpen-Master honetan gutxienez bi hizkuntzen (gaztelania, euskara edo ingelesa) jabe diren lizentziatuek esku hartu ahal izango dute. Horretarako, egin nahi duten espezialitateko hizkuntza badakitela egiaztatu beharko dute eta, behar izanez gero, onarpen azterketa gainditu. Espezialitate bakoitzean 25 ikaslerentzako lekua izango da. Masterrak bi urteko (urritik ekainera) iraupena izango du, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 6.00etatik 9.00etara. Denetara 85 kreditu emango dira.

Matrikula irailaren 15etik 30era bitartean egingo da Idazkaritza Orokorrean. Argibide gehiago Filosofia eta Letren Dekanatoan. Tfnoa.: (94) 445 31 00, 2360 luzapena.

✓ Kontutan hartzeko

- **Arrasate 93 lehiaketak.**

Arrasateko AED elkarteak ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazkia, diapositiba eta bideoa sarituko ditu. Lanak azaroaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira. Tfnoa.: (943) 79 54 46.

- **Eusko Ikaskuntzaren 75. urtemuga** Oñatiko Unibertsitatean ospatuko da

irailaren 17an. XII. Kongresuaren aurkezpena, Euskal Herriko agintarien harrera eta Batzar Nagusia egingo dira.

- **VIII. Literatur lehiaketa euskaraz egile berrientzat.**

Iruñeko Udalak antolatuta, olerkia, narrazio laburra eta bertso-paperak sarituko dira. Saritan 900.000 pta. Epea: urriaren 22a.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA